

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Guk sortutako produktua ez da berrikuntza bat izango merkatuan. Izan ere, munduan zehar gure antzeko produktuak sortzen dituzten hainbat multinazional ezagun daude. Gure produktuaren desberdintasunetako bat euskaraz jolasteko aukera izango dutela da eta horrela gure hizkuntzari bultzadatxo emango diogu merkatu berri honetan sartzeko. Eskuragarritasun handikoa izango da hau da, ez da dirudunen esku bakarrik egongo garai batzuetan bezala, edozeinek erosi ahal izango du diru kopuru txiki baten truke. Gure produktua merkatuan dauden arlo berdineko produktuetatik desberdintzen duena da erabilera erraza duela, kontsolan sartzearekin nahikoa da eta ez da deskarga berezirik egin behar.